

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Araoztik El Doradora

ARAOTZ, 1510. Lope Agirre jaio zen Oñatitik gertu. Ondasunik gabeko noble familia bateko bigarren semea izaki, bi aukera zituen: eliza edo ozeanoaz bestaldeko abentura.

1534an Sevillan ontziratu zen, Amerikara bidean.

Mundu Berrian pasatako lehen urteen berri gutxi iritsi zaigu. El Doradoren bila abiatutako espedizioa da Agirreren ezagunena. Garai haietako giroa gerra zibiltzat jo dezakegu, eta Agirreren curriculum beltza gizontzen hasi zen urrezko paradisuaren bila abiatu baino lehen ere. 1544an, Perun, erregezaleen aldean borrokatu zuen; Pizarro eta Carvajalen altxamenduaren aurka, alegia. Erregezaleen porrotaz bat, Agirrek Nikaraguara alde egin zuen. Handik bost urtera, Perura itzuli eta Francisco Esquivel epaileak jendaurrean zigortua izatera kondenatu zuen. Mendekua agindu zion araoztarrak epaileari; baita hitza bete ere. Kondairak dio lope Agirrek 6.000 kilometro egin zituela oinez Esquivelen atzetik –zaldunak ezin du zaldi gainean ibili ohorea berreskuratu arte–. Buruan labana sartuta hil zuen epailea Cuzcoko haren etxean. 1551n izan zen hori. Hurrengo urtean, besteak beste, Cuzcoko gobernadorea hil zuen. 1554an berrito erregezaleen armadan sartu zen. Gerra hartatik herren eta erredura larriekin irten zen. Ordurako *Agirre Eroa* esaten zitoten.

1560an Pedro Ursua nafarra buru zuen espedizioan sartu zen, eta El Doradoren bila abiatu. Urrezko erre-

sumaren mitoa jokaldi borobila zen Gaztelako koroarentzat. El Dorado existitzen bazen, Felipe II.aren ondasunak izugarri haziko ziren. Bitartean, espediziotan parte hartzen zuten noble frustratu andanak ez ziren aspertuko, hots, ez ziren hain arriskutsuak izango.

Abiatu eta hiru hilabetera espedizioa kide gehienak matxinatu egin ziren, bidaiaren baldintza gogorrek eta Lope Agirrek bultzatuta. Ursua eta honen jarraitzaile nagusiak hil zituzten.



Lope Agirreren rola Klaus Kinski aktoreak jokatu zuen *Aguirre, the Wrath of God* (1972) filmean. Espainiako Felipe II.aren desioen aurka, Agirrek txoko bat lortu zuen historian.

1561eko maiatzean espedizioaren ardura beregain hartu zuen Agirrek. Ez zuen El Doradon sinesten, eta, ordurako *Agirre Traidorea* zenak, traizioa muturrera eraman zuen. Felipe II.a erregeari gutuna bidali zion, erregea “inoizko gerrarik gordinena” rekin mehatxatuz. Zenbaitek amerikar kolonien independentziaren aldeko lehen oihutzat jo izan dute Agirreren gutuna –besteak beste, Simon Bolibarrek berak–.

Baina Agirrek piztutako iskanbila handik gutxira itzali zen. 1561eko urrian Agirrek lagun gutxi eta etsai gehiegi zituen inguruan.

Araozkoari 70 hilketa baino gehiago egozten dizkiote, eta azkena orduantxe burutu zuen. Elvira alabari labankada hilkorra sartu zion, “inork *traidorearen alaba* esan ez diezazun”.

Bere alboan geratzen ziren gizon apurrek hil zuten Venezuelako Barquisimeton, arkabuzez tirokatuta. Felipe II.ak Lope Agirreren izena aipatzea debekatu zuen mendean zituen lurraldeetan. Alferrik. Tartean behin, oraindik ere, haren espiritua Venezuelako kostaldean agertzen dela diote. ■

ARRASTOAK

HISTORIAKO ESPAINIARRIK GARRANTZITSUENA

hautatuko dute aurki Antena 3 telebista kateko saio batean. Kateak ez du oraindik jakinarazi saioaren data, baina hilabete honetan izango dela dio webean.

Antzeko saioak egin dira lehena go beste herrialde batzuetan. Frantzia Charles De Gaulle hautatu zuten, Holandan Pim Fortuyn ultraeskuindarra, AEBetan Ronald Reagan eta Erresuma Batuan Winston Churchill. Beraz, XX. mendeko agintari politikoak dira nagusi.

Horregatik Espainian Francisco Franco faboritoen artean egon daiteke. Ez litzateke aukeratutako lehen diktadorea izango, Portugaleko telebista publikoan Antonio de Oliveira Salazarrek lortu baitzuen lehen postua. Alemanian Adolf Hitler zerrendatik kanpo uztea erabaki zuten, baina Espainian ez da horrelako betorik izango; Franco 100 finalisten artean dago (besteak beste, Chiliba, Unamuno, Elkano, Telmo Zarraonaindia eta Miguel Indurain euskaldunekin batera).



Alemanian Hitler hautagaien zerrendatik kanpo utzi zuten eta Konrad Adenauer aukeratu zuen ikuslegoak.